

Bernardo Ezenarro kalea norantza bakarrekoa izango da aurrerantzean



Aste honetan hasi dituzte Bernardo Ezenarro kalea berrurbanizatzeko obrak, eta aldaketen artean aipagarriena norantzkoaren aldaketa izango da. Gaur egun trafikoarentzako bi norabide ditu kaleak, baina obrak amaitu ostean, ambulatortik gora doan aldapa norantza bakarrekoa izango da. Eremu horretan espaloia zabaldu egingo dute, eta 1,5 metro neurtzetik 2,5 eta 3 metrora pasatuko da. Horrez gain, bidearen alde batean aparkalekuak sortuko dituzte, bidea estutuz. Horregatik izango da norantza bakarrekoa. Bernardo Ezenarro kalea berrurbanizatzeko proiektua 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan boto gehien jaso zuen hirugarren proiektua izan zen, Bolatokia berrurbanizatzeko eta Urazandi eta Aizkorri lotzeko oinezkoen pasealekua egokitzeko proiektuen atzetik. Udalak guztira 50.070 euro (BEZa kanpo) erabiliko ditu lan horiek egiteko, eta aurreikuspenen arabera, bi hilabetez amaituko dituzte obrak.

Irailean hasiko dituzte Bolatokia berritzeko obrak



Irailean hasiko dituzte Bolatokia berritzeko obrak, eta ondo bidean, hiru hilabetez amaituko dituzte lanak. Udalak 164.847 euro erabiliko ditu ingurune hau berritzeko, eta besteak beste, erdiko aldean dauden eskaierak kenduko dituzte, oinezkoentzat plaza itxi bat sortzeko. Espazioak harmailak ere izango ditu. 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan boto gehien lortu zuen proiektua izan zen hau.

Elgoibarko zuhaitzak ezagutzeko irteera, bihar

Elgoibarko herrigunean dauden zuhaitzak ezagutzeko irteera antolatu du Morcaikok, eta Andoni Segundo izango da gidaria, *Elgoibarko zuhaitzak* liburuaren egilea, hain zuzen ere. Bihar izango da irteera. 9:30ean batuko dira Kultur Etxe aurrean, eta ibilaldiak hiru bat ordu iraungo ditu. Besteak beste, herriko zuhaitzak identifikatzen eta sailkatzen ikasiko dute. Izena emateko 636 994 798 telefonora deitu behar da.

Organo emaileei buruzko informazio mahaiak bihar, Kalegoen plazan

Ekaineko lehenengo astean izaten da Organo Emaileen Nazioarteko Eguna, eta horren harira, informazio mahaiak jarriko dituzte bihar goizean, Kalegoen plazan. 40 bat urte inguru dira dagoeneko Alcer elkarteak egun hau antolatzen duela, organoak ematen dituzten anonimo guztiei errekonozimendua egiteko. Izan ere, organoak ematea, bizia ematea da, eta herritarrak behar horretaz kontzientzia hartzea nahi dute antolatzaileek. Espainia liderra da organo transplanteetan: iaz, 3.310 giltzurrun transplante egin ziren, 1.230 gibelegoak, 369 biriketakoak, 321 bihotzekoak eta 83 pankreasekoak.

Kantabriara irteera, jubilatuentzat

Comillas eta Santillana del Mar ezagutzeko irteera antolatu du Jubilatuen Biltokiak, uztailearen 10erako. Bazkideek 38 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek 43 euro. Izena emateko biltokiko bulegora joan behar da, astelehen edo ostiraletan, 11:00etatik 12:00etara.